



LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza*

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico*

Gabinete de Prospección Sociológica

**EAEko herritarren iritzia “Aurrera doan herria /
Un país en marcha” sloganari buruz**

***Opiniones de la población de la CAPV en relación al
slogan “Un país en marcha / Aurrera doan herria”***

2006ko Otsaila

Febrero 2006

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1
LABURPENA / SÍNTESIS	3
A – “AURRERA DOAN HERRIA / UN PAÍS EN MARCHA” SLOGANAREN EZAGUTZA / CONOCIMIENTO DEL SLOGAN “UN PAÍS EN MARCHA / AURRERA DOAN HERRIA”	7
• Sloganaren ezagutza espontanea / <i>Conocimiento espontáneo del slogan</i>	8
• Sloganaren edukiaren eta sustatzailearen identifikazioa / <i>Identificación del contenido y del promotor del slogan</i>	9
• Slogana jasotzeko bidea / <i>Medio de recepción del slogan</i>	11
• Slogana erabiltzen duten kanpainen identifikazioa / <i>Identificación de las campañas en las que se utiliza el slogan</i>	13
B – “AURRERA DOAN HERRIA / UN PAÍS EN MARCHA” SLOGANARI BURUZKO IRITZIAK / OPINIONES SOBRE EL SLOGAN “UN PAÍS EN MARCHA / AURRERA DOAN HERRIA”	15
• Sloganari buruzko iritzi orokorra / <i>Opinión general sobre el slogan</i>	16
• Sloganaren egokitasuna Eusko Jaurlaritzaren kanpaina instituzionaletarako / <i>Idoneidad del slogan para campañas institucionales del Gobierno Vasco</i>	17
• Slogana EAEko errealitatearekin bat etortzea / <i>Ajuste del slogan con la realidad de la CAPV</i>	18
• Slogana EAEko errealitatearekin bat ez etortzeko faktoreak / <i>Factores de desajuste del slogan con la realidad de la CAPV</i>	19
ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA	22

Sarrera / Introducción

Helburuak eta Informazioaren Iturria / Objetivos y origen de la Información

EAEko herritarrok Eusko Jaurlaritzak bere publizitate kanpainetan erabiltzen duen "Aurrera doan herria / Un país en marcha" slogana ezagutzen ote dugun eta nola baloratzen dugun jakitea da ikerketa honen helburua.

Lan honetako emaitzak **2006ko otsailean telefonoz egindako elkarrizketetan egindako galderetatik** datoz.

2003an jasotako antzeko datuak ere ditugu, beraz slogan horren ezagutza eta balorazioaren bilakaera aztertu ahal izango dugu.

El objetivo de este estudio es conocer si los vascos y vascas conocemos el slogan empleado por el Gobierno Vasco en sus campañas publicitarias, "**Un país en marcha / Aurrera doan herria**" y cómo lo valoramos.

Los resultados de este trabajo proceden de unas preguntas realizadas a través de entrevista telefónica individual en **febrero de 2006**.

También se dispone de **datos similares correspondientes a 2003**, lo que permitirá conocer la evolución en el conocimiento y valoración del slogan.

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleria guztirako ez ezik **segmentazio soziodemografiko eta jarrerazkoen arabera** ere aztertu dira. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko eta jarrerazko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64 eta >=65.*
- Begikotasun politikoa (Eusko Legebiltzarrean dauden partidu politikoen artean begikotasunik handiena eragiten diona): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, denak berdin, bat ere ez, ed/ee.*

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y actitudinales**. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón y mujer.*
- Grupos de edad: *18-29, 30-45, 46-64 y >=65.*
- Simpatía política (partido político por el que siente más simpatía de entre los presentes en el Parlamento Vasco): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, todos por igual, ninguno, ns/nc.*

Laburpena / Síntesis

Puntuz puntu / Punto por punto

EZAGUTZEN DA EUSKO JAURLARITZAREN “AURRERA DOAN HERRIA / UN PAÍS EN MARCHA” SLOGANA?

EAEko biztanleriaren erdiak baino apur bat gehiagok (%56k) “Aurrera doan herria / Un país en marcha” slogana entzun edo ikusi du noizbait.

EZAGUTZEN DUTENEK, ZEREKIN LOTU DUTE?

Slogana ikusi edo entzun dutenek Eusko Jaurlaritzarekin lotu dute batez ere (%34k), Dezente gutxiago dira politika edo politikariekin lotu dutenak (%10), publizitate kanpainaren batekin lotu dutenak (%5), esaldiaren esanahiarekin, hau da, aurrerapenekin edo herria ondo joatearekin lotu dutenak (%5), edota erakundeekin edo administrazioarekin lotu dutenak (%2). Beste %10ek bestelako gauzekin erlazioatu dute.

ETA ZEIN EUSKARRITAN IKUSI EDO ENTZUN DUTE?

Slogana gehien ezagutzen den bidea telebista da: ezagutzen dutenen %62k telebistan ikusi dutela diote. Gainera %21ek irratiz entzun dute, %18ek ikusi edo irakurri dute prentsan, %6k foileto edo karteletan eta %4k panel publizitarioetan edo telefono-kabinetan. Beste %2k diote beste bideetatik izan dutela horren berri.

GOGORATZEN AL DA SLOGAN HORI AGERTZEN DEN JAURLARITZAREN KANPAINARIK?

Oso gutxi dira slogan hori agertzen den publizitate kanpaina zehatzen bat gogoratu duten lagunak. Biztanleriaren %3k Industria, Merkataritza eta Turismo sailak agindutako kanpainaren batetan ikusi edo entzun dutela esan dute. Eta bakarrik %1ek, kasu bakoitzean, esan du ondoko sailek agindutako kanpainetan ikusi edo entzun dutela: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura saila, Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendu saila, Herrizaingo saila, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak saila edo Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren saila. %1 baino gehiago ez dira hauteskunde-kanpainaren batetan edota aipatu ez den bestelako kanpainetan ere ikusi edo entzun dutenak.

ZELAKO BALORAZIOA MEREZI DU SLOGANAK?

Biztanle gehienei (%86ri) gustatzen zaie slogana eta ia beste horrenbesteri (%84k)

¿SE CONOCE EL SLOGAN DEL GOBIERNO VASCO “UN PAÍS EN MARCHA / AURRERA DOAN HERRIA”?

Algo más de la mitad de la población de la CAPV (56%) ha oído o visto alguna vez el slogan “Un país en marcha / Aurrera doan herria”.

QUIENES LO CONOCEN, ¿CON QUÉ LO RELACIONAN?

Quienes han visto u oído el slogan lo relacionan principalmente con el Gobierno Vasco (34%). Son bastantes menos quienes lo vinculan a la política o a los políticos (10%), a alguna campaña publicitaria (5%), al contenido de la frase, es decir, al progreso, a que el país va bien (5%) o a las instituciones o a la administración (2%). Un 10% lo relaciona con otras cosas diferentes.

¿Y EN QUÉ MEDIO LO HAN VISTO U OÍDO?

El medio por el que más se conoce el slogan es la televisión: el 62% de quienes lo conocen dicen haberlo visto en la televisión. Además, un 21% lo ha oído por la radio, un 18% lo ha visto o leído en la prensa, un 6% en folletos o carteles y un 4% en vallas publicitarias o cabinas telefónicas. Otro 2% señala haber tenido noticia de él por otros medios.

¿SE RECUERDA ALGUNA CAMPAÑA GUBERNAMENTAL EN LA QUE APAREZCA TAL SLOGAN?

Son muy pocos los ciudadanos o ciudadanas que recuerdan alguna campaña publicitaria en la que aparezca tal slogan. Un 3% de la población dice haberlo visto u oído en alguna campaña encargada por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo. Y apenas un 1%, en cada caso, dice haberlo visto u oído en alguna campaña de los Departamentos de Agricultura, Pesca y Alimentación, Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, Interior, Vivienda y Asuntos Sociales o Justicia, Empleo y Seguridad Social. También son un 1% quienes dicen haberlo visto u oído en alguna campaña electoral o en alguna campaña distinta de las mencionadas.

¿QUÉ VALORACIÓN SE HACE DEL SLOGAN?

A la gran mayoría de la población (86%) le gusta el slogan y casi otros tantos (84%) lo consideran adecuado para utilizarlo en las campañas institucionales del Gobierno

egokia iruditzen zaie Eusko Jaurlaritzaren kanpaina instituzionaletan erabiltzeko.

EAE-KO ERREALITATEAREKIN BAT DATORRELA USTE AL DA?

Herritarren erdiek baino apur bat gehiagok (%56k) uste dute slogana bat datorrela EAEko errealitatearekin, beste %26k ez dute uste hori eta gainontzeko %18k ez dakite edo ez dute horretaz iritzirik eman.

ZEINTZUK DIRA ERREALITATEAREKIN BAT EZ DATORRELA USTEKO ARRAZIOIAK?

Slogana errealitatearekin bat ez datorrela uste dutenen artean, gehien argudiatu den arrazoia hauxe da: egoera politikoa (terrorismoa, ETA, euskal gatazka politikoa, demokrazia falta, eta abar) ez datorrela bat sloganaren mamiarekin (horrela deritzote slogana errealitatearekin bat ez datorrela uste dutenen %41ek). Egoera ekonomikoa (langabezia, krisi ekonomikoa, eta abar) %28k aipatu dute, egoera soziala (pobrezia, arrazismoa, etxebizitzaren arazoak, eta abar) %19k eta arazo kulturalak (hezkuntza, euskara,...) %6k. Gainera %9k diote esaldiak ez diela ezer esaten, %2k herria ez doala aurrera baizik eta gelditi dagoela eta %1ek, are gehiago, atzerantz goazela. Beste %9k aipatu ez diren bestelako arrazoiak eman dituzte.

Vasco.

¿SE CONSIDERA QUE SE AJUSTA A LA REALIDAD DE LA CAPV?

Algo más de la mitad de la ciudadanía (56%) cree que el slogan se ajusta a la realidad de la CAPV, otro 26% no lo cree así y el 18% restante no sabe o no opina al respecto.

¿CUÁLES SON LAS RAZONES PARA CREER QUE NO SE AJUSTA A LA REALIDAD?

Entre quienes creen que el slogan no se adecua a la realidad, la razón más argumentada es que la situación política (terrorismo, ETA, conflicto político vasco, falta de democracia, etc) no es acorde al contenido del slogan (así opina el 41% de quienes comentan que el slogan no se ajusta a la realidad). La situación económica (paro, crisis económica, etc) es comentada por un 28%, la situación social (pobreza, racismo, problemas de vivienda, etc), por un 19% y los problemas culturales (educación, euskera,...) por un 6%. Además, un 9% señala que la frase no les dice nada, un 2% que el país no avanza sino que está parado, y un 1% incluso que vamos hacia atrás. Otro 9% señala razones diferentes de las señaladas.

2003ko datuekin alderatuz / Respecto a los datos de 2003

Slogana gehiago ezagutu da 2006an 2003an baino eta orain lehen baino gehiago dira Eusko Jaurlaritzarekin lotu dutenak.

Berriro ere telebista da berau ezagutzera gehien eman duen bidea, dena den, gehitu da apur bat irratiz entzun dutenen edo prentsan ikusi edo irakurri dutenen kopurua.

Slogana agertzen den kanpaina zehatzen oroimena orain dela hiru urte bezain eskasa da.

Slogana gustukoa dutenen ehunekoa ia berdin mantendu da eta Eusko Jaurlaritzaren kanpaina instituzionaletan erabiltzeko egokia dela deritzotenena gehitu da. Slogana EAEko errealitatearekin bat datorrela uste dutenak ere gehitu dira 2006an. Horrela ez deritzoten artean arrazoia dugun egoera politikoa datzala uste dutenak apur bat gutxitu dira eta gehitu dira egoera ekonomikoagatik edo sozialagatik dela argudiatu dutenak.

El slogan es algo más conocido en 2006 que en 2003 y ahora son más que antes quienes lo vinculan con el Gobierno Vasco.

Nuevamente, la televisión es el medio que más lo ha dado a conocer, si bien se ha incrementado ligeramente el número de quienes dicen haberlo oído por la radio o haberlo visto o leído en prensa.

El recuerdo de campañas concretas en las que aparezca el slogan sigue siendo tan bajo como hace tres años.

El porcentaje de quienes dicen que les gusta el slogan es prácticamente igual y se ha incrementado el de quienes lo juzgan adecuado para utilizarlo en las campañas institucionales del Gobierno. También son algunos más en 2006 quienes creen que el slogan se ajusta a la realidad de la CAPV. Entre quienes no lo creen así ha descendido ligeramente el número de quienes aducen que ello se debe a la situación política y se ha incrementado el de quienes argumentan que se debe a la situación económica o a la situación social.

AZKEN BURUAN / EN DEFINITIVA

Biztanleriaren erdiak baino apur bat gehiagok ezagutzen du "Aurrera doan herria / Un país en marcha" slogana eta ezagutza hori gehitu da 2003tik 2006ra. Ezagutzen dutenek batez ere Eusko Jaurlaritzarekin lotu dute eta gehienek telebistaz ikusi dutela diote, dena dela, irratiz entzun dutenak edota prentsan ikusi edo irakurri dutenak gehitu dira. Hala ere, oso lagun gutxik gogoratu dute slogan hori agertzen den publizitate kanpaina zehatzen bat.

Herritar gehienei slogana gustatzen zaie eta egokitzat jo dute Eusko Jaurlaritzaren kanpaina instituzionaletan erabiltzeko. Herritarren erdiek baino apur bat gehiagok uste dute esaldi hori bat datorrela EAEko errealitatearekin eta iritzi hori zabaldu da 2003tik 2006ra. Errealitatearekin bat ez datorrela uste dutenen artean, gehien argudiatu den arrazoia bizi garen egoera politikarekin bat ez etortzea da, nahiz eta arrazoi horren aipamenak apur bat eskatu diren 2003tik gaur egunera. Era berean, gehitu da egoera ekonomikoagatik edo sozialagatik ez datorrela bat uste dutenen kopurua.

Algo más de la mitad de la población conoce el slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria", conocimiento que se ha incrementado de 2003 a 2006. Quienes lo conocen lo vinculan principalmente con el Gobierno Vasco y la mayoría dice haberlo visto en la televisión, si bien se ha incrementado el número de quienes dicen haberlo oído por la radio o visto o leído en la prensa. En cualquier caso, son muy pocas las personas que recuerdan alguna campaña publicitaria concreta en la que aparezca este slogan.

A la mayoría de la gente le gusta el slogan y lo considera adecuado para utilizarlo en las campañas institucionales del Gobierno Vasco. Algo más de la mitad de la ciudadanía cree que la frase se ajusta a la realidad de la CAPV, percepción que se ha incrementado de 2003 a 2006. Entre quienes creen que no se ajusta a la realidad, la principal razón aducida es que no se adecua a la situación política que vivimos, si bien la mención de esta razón ha descendido algo respecto a 2003, al tiempo que se ha incrementado el número de quienes señalan que las situaciones económica o social hacen que el slogan no se ajuste a la realidad.

A - "Aurrera doan herria / Un país en marcha" sloganaren ezagutza / Conocimiento del slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"

- **Sloganaren ezagutza espontaneo / Conocimiento espontáneo del slogan**
- **Sloganaren edukiaren eta sustatzailearen identifikazioa /
Identificación del contenido y del promotor del slogan**
- **Slogana jasotzeko bidea / Medio de recepción del slogan**
- **Slogana erabiltzen duten kanpainen identifikazioa /
Identificación de las campañas en las que se utiliza el slogan**

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" sloganaren ezagutza / Conocimiento del slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"

Sloganaren ezagutza espontanea / Conocimiento espontáneo del slogan

(GUZTIZKOAK, BILAKAERA ETA KOLEKTIBOKAKO AZTERKETA / TOTALES, EVOLUCIÓN Y ANÁLISIS POR COLECTIVOS)

Entzun duzu inoiz "Aurrera doan herria / Un país en marcha" slogan edo esaldia? /

¿Ha oído Ud. la frase o slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"?

	2006KO OTSAILA FEBRERO 2006	2003KO UZTAILA * JULIO 2003 *	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO	
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER
Bai / Sí.....	56	47	57	56	56	59	54
Ez / No.....	41	50	40	41	41	39	43
Ed-Ee / Ns-Nc.....	3	4	3	2	3	1	4
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100

	ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				BEGIKOTASUN POLITIKOA / SIMPATÍA POLÍTICA									
	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/PNV	PSE-EE	PP	EHAk	EA	EB	ARALAR	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	BAT ERE EZ NINGUNO	Ed-Ee Ns-Nc
Bai / Sí.....	49	66	55	51	64	51	59	67	69	70	61	50	49	50
Ez / No.....	49	32	43	45	32	49	41	33	30	28	39	50	47	47
Ed-Ee / Ns-Nc.....	2	2	2	5	3	0	0	0	1	2	0	0	4	3
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* 2003AN INKESTA EUSKARAZ BETE ZUTEN INKESTATUEI "AURRERA DOAN HERRIA" SLOGANA EZAGUTZEN OTE ZUTEN GALDETU ZITZAIEN. GAZTELANIAZ BETE ZUTENEI, BERRIZ, "UN PAÍS EN MARCHA" SLOGANA EZAGUTZEN OTE ZUTEN GALDETU ZITZAIEN. / EN 2003 A LOS ENCUESTADOS Y ENCUESTADAS QUE CUMPLIMENTARON LA ENCUESTA EN EUSKERA SE LES PREGUNTÓ SI CONOCÍAN EL SLOGAN "AURRERA DOAN HERRIA". A QUIENES LA HICIERON EN CASTELLANO, EN CAMBIO, SE LES PREGUNTÓ SI CONOCÍAN EL SLOGAN "UN PAÍS EN MARCHA".

- EAEko biztanleriaren erdiak baino apur bat gehiagok (%56k) entzun du "Aurrera doan herria / Un país en marcha" slogana.
- Slogana gehiago entzun dute 30-45 urte bitartekoek eta ondoko alderdien jarraitzaileek: Ezker Batua, EA, EHAk edo EAJ.
- Sloganaren ezagutza zabaldu da 2003tik 2006ra.

- Algo más de la mitad de la población de la CAPV (56%) ha oído el slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria".
- Quienes más han oído el slogan son las personas que cuentan entre 30 y 45 años y quienes simpatizan principalmente con Ezker Batua, EA, EHAk o PNV.
- El conocimiento de este slogan se ha incrementado de 2003 a 2006.

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" sloganaren ezagutza / Conocimiento del slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"

Sloganaren edukiaren eta sustatzailearen identifikazioa / Identificación del contenido y del promotor del slogan

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Zerekin edo norekin lotzen duzu esaldi hori? * / ¿Con qué o quién relaciona esa frase?*		
AUKERA BAKOITZA AIPATU DUTENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE MENCIÓN DE CADA OPCIÓN DE RESPUESTA	2006KO OTSAILA FEBRERO 2006	2003KO UZTAILA JULIO 2003
EUSKO JAURLARITZA / EL GOBIERNO VASCO	34	22
INSTITUZIOAK, ADMINISTRAZIOA / LAS INSTITUCIONES, LA ADMINISTRACIÓN.....	2	5
KANPAINA ZEHATZ BAT, PUBLIZITATEA / ALGUNA CAMPAÑA CONCRETA, PUBLICIDAD	5	6
EDUKIA (PROGRESOA, HERRIA ONDO DOA) / CONTENIDO (PROGRESO, EL PAÍS VA BIEN).....	5	6
POLITIKA ETA ALDERDI POLITIKOAK / LA POLÍTICA Y LOS PARTIDOS POLÍTICOS.....	10	10
BESTE ERANTZUN BATZUK / OTRAS RESPUESTAS	10	16

* "AURRERA DOAN HERRIA / UN PAÍS EN MARCHA" SLOGANA EZAGUTZEN DUTENEI BAKARRIK GALDETU ZAIE. GALDERA ESPONTANEOA, INOLAKO ERANTZUNIK IRADOKI BARIK. INKESTATUEK NAHI BESTE ERANTZUN EMAN AHAL ZITUZTEN. / PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN EL SLOGAN "UN PAÍS EN MARCHA / AURRERA DOAN HERRIA". PREGUNTA ESPONTÁNEA, SIN SUGERIR NINGUNA RESPUESTA. LOS ENCUESTADOS O ENCUESTADAS PODÍAN DAR TANTAS RESPUESTAS COMO DESEARAN.

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" slogana ikusi edo entzun dutenen heren batek (%34k), ezer iradoki barik, Eusko Jaurlaritzarekin lotu du slogan hori. Dezente gutxiago dira ondokoekin lotu dutenak: erakundeekin edo administrazioarekin %2k, publizitateko kanpainaren batekin %5ek, aurrerapenarekin edo herria ondo doala aditzera ematen duen mamiarekin beste %5ek, politikarekin edo alderdi politikoekin %10ek edo beste gauzekin gainontzeko %10ek.

2003tik nabarmen gehitu da slogan hori Eusko Jaurlaritzarekin lotzen dutenen kopurua (%22tik %34ra).

Un tercio de quienes dicen haber visto u oído el slogan "Un país en marcha / Aurrera dan herria" (34%) lo relaciona espontáneamente con el Gobierno Vasco. Son bastantes menos quienes lo relacionan con las instituciones o la administración (2%), con alguna campaña publicitaria (5%), con el contenido de la frase en relación al progreso, a que el país va bien, etc (5%), con la política o los partidos políticos (10%) o con otras cuestiones (el 10% restante).

Respecto a 2003 se ha incrementado notablemente el número de quienes vinculan el slogan con el Gobierno Vasco (de un 22% a un 34%).

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" sloganaren ezagutza / Conocimiento del slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"

Sloganaren edukiaren eta sustatzailearen identifikazioa / Identificación del contenido y del promotor del slogan

(KOLEKTIBOKAKO AZTERKETA / ANÁLISIS POR COLECTIVOS)

Zerekin edo norekin lotzen duzu esaldi hori? * / ¿Con qué o quién relaciona esa frase?*

AUKERA BAKOITZA AIPATU DUTENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE MENCIÓN DE CADA OPCIÓN DE RESPUESTA	2006ko OTSAILA FEBRERO 2006	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
EUSKO JAURLARITZA / EL GOBIERNO VASCO	34	35	39	25	39	28	42	45	23	20
INSTITUZIOAK, ADMINISTRAZIOA / LAS INSTITUCIONES, LA ADMINISTRACIÓN	2	0	3	1	3	1	1	2	3	1
KANPAINA ZEHATZ BAT, PUBLIZITATEA / ALGUNA CAMPAÑA CONCRETA, PUBLICIDAD	5	3	7	3	5	5	11	4	4	3
EDUKIA (PROGRESOA, HERRIA ONDO DOA) / CONTENIDO (PROGRESO, EL PAÍS VA BIEN)	5	4	5	7	5	5	3	3	6	12
POLITIKA ETA ALDERDI POLITIKOAK / LA POLÍTICA Y LOS PARTIDOS POLÍTICOS	10	14	10	10	10	10	12	12	12	5
BESTE ERANTZUN BATZUK / OTRAS RESPUESTAS	10	8	11	7	9	10	11	6	13	11

	BEGIKOTASUN POLITIKOA / SIMPATÍA POLÍTICA									
	EAJ/PNV	PSE-EE	PP	EHAKE	EA	EB	ARALAR	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	BAT ERE EZ NINGUNO	ED-EE NS-NC
EUSKO JAURLARITZA / EL GOBIERNO VASCO	33	55	17	25	34	43	55	31	32	30
INSTITUZIOAK, ADMINISTRAZIOA / LAS INSTITUCIONES, LA ADMINISTRACIÓN	1	4	0	0	0	3	11	0	2	3
KANPAINA ZEHATZ BAT, PUBLIZITATEA / ALGUNA CAMPAÑA CONCRETA, PUBLICIDAD	6	1	0	13	3	8	0	20	3	4
EDUKIA (PROGRESOA, HERRIA ONDO DOA) / CONTENIDO (PROGRESO, EL PAÍS VA BIEN)	3	1	4	0	10	3	10	30	2	10
POLITIKA ETA ALDERDI POLITIKOAK / LA POLÍTICA Y LOS PARTIDOS POLÍTICOS	10	6	37	23	13	18	0	0	13	5
BESTE ERANTZUN BATZUK / OTRAS RESPUESTAS	12	5	2	28	7	0	0	0	9	12

* "AURRERA DOAN HERRIA / UN PAÍS EN MARCHA" SLOGANA EZAGUTZEN DUTENEI BAKARRIK GALDETU ZAIE. GALDERA ESPONTANEOA, INOLAKO ERANTZUNIK IRADOKI BARIK. INKESTATUEK NAHI BESTE ERANTZUN EMAN AHAL ZITUZTEN. / PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN EL SLOGAN "UN PAÍS EN MARCHA / AURRERA DOAN HERRIA". PREGUNTA ESPONTÁNEA, SIN SUGERIR NINGUNA RESPUESTA. LOS ENCUESTADOS O ENCUESTADAS PODÍAN DAR TANTAS RESPUESTAS COMO DESEARAN.

Talde gehienetan slogan hau batez ere Eusko Jaurlaritzarekin lotu da. PPren jarraitzaileen artean, aldiz, gehiago dira politikarekin edo alderdi politikoeekin lotu dutenak; bestalde EHAKren jarraitzaileen artean, gehiago dira aipatu ez diren beste gauzekin erlazionatu dutenak.

Slogan hau Eusko Jaurlaritzarekin gehien lotu dute bizkaitarrek, gizonetakoek, 46 urtetik beherakoek eta PSE-EE, Aralar eta Ezker Batuaren jarraitzaileek. Aralarren jarraitzaileak dira erakundeekin edo administrazioarekin gehien lotu dutenak. Gazteek, EHAKren jarraitzaileek edo alderdi guztiak gustuko dituztenek besteek baino gehiago lotu dute publizitate kanpainaren batekin. Mamiarekin gehien lotu dute 64 urtetik gorakoek eta alderdi guztiak gustuko dituztenek. Azkenik, PP eta EHAKren jarraitzaileak dira politikarekin edo alderdi politikoeekin gehien lotu dutenak.

En la mayoría de los grupos este slogan es asociado principalmente al Gobierno Vasco. Entre las y los simpatizantes del PP, en cambio, son más quienes lo vinculan a la política o a los partidos políticos, mientras que entre las y los simpatizantes de EHAK son más quienes lo relacionan con otras cuestiones diferentes de las planteadas.

Quienes más vinculan este slogan con el Gobierno Vasco son las y los vizcainos, los varones, las y los menores de 46 años y las y los simpatizantes de PSE-EE, Aralar y Ezker Batua. Las y los simpatizantes de Aralar son quienes más lo relacionan con las instituciones o la administración. Las y los jóvenes, quienes simpatizan con EHAK o con todos los partidos por igual son quienes más lo relacionan con alguna campaña publicitaria. Las y los mayores de 64 años y quienes simpatizan con todos los partidos son quienes más lo relacionan con su contenido. Por último, las y los simpatizantes del PP y EHAK son quienes más lo ligan a la política o a los partidos políticos.

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" sloganaren ezagutza / Conocimiento del slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"

Slogana jasotzeko bidea / Medio de recepción del slogan

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Zein komunikabidetan ikusi edo entzun duzu? * / ¿En qué medio de comunicación lo ha visto u oído?*		
AUKERA BAKOITZA AIPATU DUTENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE MENCIÓN DE CADA OPCIÓN DE RESPUESTA	2006KO OTSAILA FEBRERO 2006	2003KO UZTAILA JULIO 2003
TELEBISTA / TELEVISIÓN.....	62	63
IRRATIA / RADIO.....	21	17
PRENTSA / PRENSA.....	18	13
FOILETO ETA KARTELAK / FOLLETOS Y CARTELES.....	6	5
PANEL PUBLIZITARIOAK ETA KABINAK / VALLAS PUBLICITARIAS Y CABINAS.....	4	3
BESTE BATZUK / OTROS.....	2	1

* "AURRERA DOAN HERRIA / UN PAÍS EN MARCHA" SLOGANA EZAGUTZEN DUTENEI BAKARRIK GALDETU ZAIE. GALDERA ESPONTANEOA, INOLAKO ERANTZUNIK IRADOKI BARIK. INKESTATUEK NAHI BESTE ERANTZUN EMAN AHAL ZITUZTEN. / PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN EL SLOGAN "UN PAÍS EN MARCHA / AURRERA DOAN HERRIA". PREGUNTA ESPONTÁNEA, SIN SUGERIR NINGUNA RESPUESTA. LOS ENCUESTADOS O ENCUESTADAS PODÍAN DAR TANTAS RESPUESTAS COMO DESEARAN.

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" noizbait ikusi edo entzun dutenen artean, gehiengoak (%62k) telebistaz ikusi dutela diote. Gutxiago dira irratiz entzun dutenak (%21) edo prentsan ikusi edo irakurri dutenak (%18). Eta are gutxiago dira karteletan edo foiletoetan ikusi dutenak (%6) edota panel publizitarioetan edo telefono-kabinetan ikusi dutenak (%4).

2003an gertatzen zen bezala, telebistaren bidez ezagutzen da gehien slogana. Dena dela, irratiz entzun dutenak edo prentsan ikusi edo irakurri dutenak apur bat gehiago dira orain.

Entre quienes han visto u oído alguna vez el slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria" una mayoría (62%) dice haberlo visto en la televisión. Son menos quienes lo han oído por la radio (21%) o lo han visto o leído en la prensa (18%). Y son aún menos quienes lo han visto en carteles o folletos (6%) o en vallas publicitarias o cabinas telefónicas (4%).

Al igual que en 2003, la televisión es el medio por el que más se conoce el slogan. En cualquier caso, ha aumentado un poco el número de quienes dicen haberlo oído por la radio o haberlo visto o leído en la prensa.

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" sloganaren ezagutza / Conocimiento del slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"

Slogana jasotzeko bidea / Medio de recepción del slogan

(KOLEKTIBOKAKO AZTERKETA / ANÁLISIS POR COLECTIVOS)

Zein komunikabidetan ikusi edo entzun duzu? * / ¿En qué medio de comunicación lo ha visto u oído?*

AUKERA BAKOITZA AIPATU DUTENEN EHUNEKOAK PORCENTAJE DE MENCIÓN DE CADA OPCIÓN DE RESPUESTA	2006KO OTSAILA FEBRERO 2006	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
TELEBISTA / TELEVISIÓN	62	59	64	59	60	64	65	61	59	65
IRRATIA / RADIO.....	21	19	24	18	23	19	12	23	22	26
PRENTSA / PRENSA.....	18	16	18	18	21	14	11	20	21	14
FOILETO ETA KARTELAK / FOLLETOS Y CARTELES.....	6	5	6	6	6	6	11	8	2	3
PANEL PUBLIZITARIOAK ETA KABINAK / VALLAS PUBLICITARIAS Y CABINAS	4	3	6	1	5	3	8	5	2	2
BESTE BATZUK / OTROS	2	1	3	0	1	2	0	0	0	8

	BEGIKOTASUN POLITIKOA / SIMPATÍA POLÍTICA									
	EAJ/PNV	PSE-EE	PP	EHAk	EA	EB	ARALAR	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	BAT ERE EZ NINGUNO	ED-EE NS-Nc
TELEBISTA / TELEVISIÓN	63	55	40	59	55	65	89	89	68	58
IRRATIA / RADIO.....	26	14	4	26	23	27	35	24	13	23
PRENTSA / PRENSA.....	13	29	21	18	17	21	24	8	17	20
FOILETO ETA KARTELAK / FOLLETOS Y CARTELES.....	3	9	0	0	3	12	0	12	12	5
PANEL PUBLIZITARIOAK ETA KABINAK / VALLAS PUBLICITARIAS Y CABINAS	2	15	0	6	1	4	0	0	4	5
BESTE BATZUK / OTROS	3	0	0	0	5	0	0	0	2	0

* "AURRERA DOAN HERRIA / UN PAÍS EN MARCHA" SLOGANA EZAGUTZEN DUTENEI BAKARRIK GALDETU ZAIE. GALDERA ESPONTANEOA, INOLAKO ERANTZUNIK IRADOKI BARIK. INKESTATUEK NAHI BESTE ERANTZUN EMAN AHAL ZITUZTEN. / PREGUNTA REALIZADA ÚNICAMENTE A QUIENES CONOCEN EL SLOGAN "UN PAÍS EN MARCHA / AURRERA DOAN HERRIA". PREGUNTA ESPONTÁNEA, SIN SUGERIR NINGUNA RESPUESTA. LOS ENCUESTADOS O ENCUESTADAS PODÍAN DAR TANTAS RESPUESTAS COMO DESEARAN.

Talde guztietan slogana gehiago ezagutzen da telebistaren bitartez. Dena dela, telebistaz ikusi dutela gehien diotenak Aralarren jarraitzaileak edota partidu guztiak gustukoak dituztela diotenak dira. Irratiz gehien entzun dutenak ondokoak dira: 64 urtetik gorakoak baita Aralarren, Ezker Batuaren, EAJren eta EHAkren jarraitzaileak ere. Prentsan gehien ikusi dutenak hauexek dira: gizezkoak, 30 eta 64 urte bitartekoak, eta PSE-EE, Aralar, PP eta EBren jarraitzaileak. Karteletan eta foiletoetan gehiago ikusi dute gazteek, EBren jarraitzaileek, partidu guztiak gustukoak dituztenek edo partidu bat ere gustuko ez dutenek. Azkenik, panel publizitarioetan edota telefono-kabinetan gehien ikusi dutenak gazteak eta PSE-EEren jarraitzaileak dira.

En todos los colectivos el medio por el que más se conoce el slogan es la televisión. En cualquier caso, quienes más dicen haberlo visto por la televisión son las y los simpatizantes de Aralar o de todos los partidos por igual. Quienes más dicen haberlo oído por la radio son las y los mayores de 64 años, así como las y los simpatizantes de Aralar, Ezker Batua, PNV y EHAk. Quienes más lo han visto en la prensa son los varones, quienes tienen entre 30 y 64 años y las y los simpatizantes del PSE-EE, Aralar, PP y EB. En carteles y folletos lo han visto más las y los jóvenes y quienes simpatizan con EB, con todos los partidos por igual o con ningún partido. Finalmente, quienes más lo han visto en vallas publicitarias o en cabinas de teléfono son las y los jóvenes y las y los simpatizantes del PSE-EE.

"Aurrera doan herria / Un país en marcha" sloganaren ezagutza / Conocimiento del slogan "Un país en marcha / Aurrera doan herria"

Slogana erabiltzen duten kanpainen identifikazioa / Identificación de las campañas en las que se utiliza el slogan

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Esaldi hau Eusko Jaurlaritzaren publizitate kanpainenetan joaten da. Gogoratzen duzu kanpaina zehatzen batean ikusi duzun? * /

*Esta frase acompaña habitualmente las campañas publicitarias del Gobierno Vasco. ¿Recuerda haberla visto u oído en alguna campaña concreta? **

SAIL BAKOITZAK SUSTATUTAKO KANPAINAK AIPATU DITUZTENEN EHUNEKOA PORCENTAJE DE MENCIÓN DE LAS CAMPAÑAS PROMOVIDAS POR CADA DEPARTAMENTO	2006KO OTSAILA FEBRERO 2006	2003KO UZTAILA JULIO 2003
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA / INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO	3	2
NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA / AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN	1	0
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU / MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO.....	1	1
HERRIZAINGOA / INTERIOR	1	1
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIK / VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES.....	1	0
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA / JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL.....	1	2
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA / EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN	0	1
OSASUNA / SANIDAD	0	1
HAUTESKUNDE-KANPAINA / CAMPAÑA ELECTORAL	1	2
BESTE BAT / OTRA	1	4

* GALDERA ESPONTANEOA, INOLAKO ERANTZUNIK IRADOKI BARIK . INKESTATUEK NAHI BESTE ERANTZUN EMAN AHAL ZITUZTEN / PREGUNTA ESPONTÁNEA, SIN SUGERIR NINGUNA RESPUESTA. LOS ENCUESTADOS O ENCUESTADAS PODÍAN DAR TANTAS RESPUESTAS COMO DESEARAN.

EAEko biztanleriaren erdiak baino gehiagok "Aurrera doan herria / Un país en marcha" slogana ikusita edo entzunda zeukala esan zuen arren, oso lagun gutxi dira berez (ezer iradoki gabe) publizitateko kanpaina zehatzen batekin lotu dutenak. Bakarrik herritarren %3k lotu dute Industria, Merkataritza eta Turismo sailak agindutako kanpainen batekin eta ez dira %1 baino gehiago (kasu bakoitzean): Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura, Ingurumena eta Lurralde Antolamendu, Herrizaingo, Etxebizitza eta Gizarte Gaiak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailek agindutako kanpaineekin lotu dutenak, edota hauteskunde-kanpaineekin edo bestelako kanpaineekin lotu dutenak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak edo Osasun sailak agindutako kanpainen aipatu dituztenak ez dira %1era heldu.

Slogan hori agertzen den publizitate kanpaina zehatzak gogoratu dituztenak ez dira gehitu 2003tik gaur egunera.

